

Kaka zaharra!

- Ala, bada, zuek ere bai!
- Eta giltzak?
- Ixo!
- Zer pasatu zaizu, Xabi?
- Bada, lehenengo, goizean, etxetik atera, eta kaka zapaldu dut.
- Ups. Kaka lehorra?
- Ez, kaka freskoa. Fresko-freskoa. Antzokira joan naiz, eta antzerkiko arropak, etxean! Etxera bueltatu naiz, arropak hartu ditut eta antzokira joan naiz berriro. Eta zer gertatu da han?
- Zuzendaria, haserre.
- Zuzendariak, gaur, beste arropa bat eman dit. Gaur, beste bat . Oso ondo!
- Eta zertara joan zara antzokira, entseatzera?
- Ez, gaur ikuskizuna, Boise! 200 pertsona publikoan!
- A... Egia! Eta? Ondo egin duzu?
- Testua ahaztu zait! Testua ahaztu zait!
- Ai... Baina... giltzak? Non galdu dituzu?
- Bada, antzokitik atera naiz, autobusa ikusi dut eta korrika hasi naiz. Korrika hasi naiz, eta giltzak poltsikotik erori zaizkit. Eta... sorpresa! Zulo batean erori dira.
- Eta zuloa oso sakona, ezta?
- Eskua sartu dut, besoa sartu dut, eta ezer ez.
- Han geratu dira.
- Bai, giltzak han geratu dira. Baina autobusa ez. Autobusak alde egin du.
- Oooo.
- Eta oinez etorri naiz antzokitik etxera. Oinez, eta giltzarik gabe.
- Bueno, eta zure eguna, zer?
- Bada, nire eguna ere gaizki.
- Benetan? Zer pasatu zaizu zuri?
- Goizean Enarak deitu dit eta harekin atera naiz korrika egitera. Nik ez dut kaka zapaldu. Niri txori batek egin dit kaka.
- Benetan?
- Bai, eta hori bai kaka fresko-freskoa! Gero, bazkaria prestatu dut, baina hemen ahaztu zait. Ikasgelatik atera eta tabernara joan naiz, baina... itxita zegoen
- Ups. Eta... ez duzu bazkaldu?
- Makinako patata-poltsa bat.
- Boise, pelikula bat eta krispeta batzuk merezi ditugu.
- Bai, merezi ditugu.
- Kaka zaharra!
- Eguneko hirugarren kaka.